

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

EX-man taldea: Ondasunak gordetzeko takila zerbitzua.

Gure enpresaren bazkideak Mireia Barriola, Adur Irastorza, Nahia Fernandez, Eider Galarza eta Xuban Garmendia gara.

- Adur eta Mireia: imaginazio asko dutenez, gure enpresako diseinuetaz arduratuko dira.
- Eider: Publizitatea kanpainaz eta webgune bat sortzeaz arduratuko da.
- Xuban: Enpresako zuzendari lanetan arituko da, denak behar bezala funtzionatzeko. Kalkuluak, sarrerak, kostuak, mozkinak...
- Nahia: Beste enprekin harremanduko da. Bilerak egin eta gure enpresako ordezkari gisa egingo du lan.

Hornitzaileei dagokionez berriz, lehenik eta behin Tolosako Udaletxearekin jarriko ginateke harremanetan, gure enpresa bertan kokatu ahal izateko. Halere gure helburu nagusia beste zenbait lekuetara hedatzea da, enpresa hazi eta egonkortzeko.

Takilak sortzeko materialak, inguruko enpresei erosiko dizkiegu, inguruko produktuak eta enpresak sustatzeko. Garbiketa lanei eta segurtasunari dagokionez, beste enpresa batzuk azpikontratatzeko ditugu gure errentagarritasunari bermea emateko.